

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**278/2024 Foru Agindua, uztailaren 29koa. Arabako Foru Aldundiaren 2023ko enplegu publikoaren eskaintzako plazak metatzearen ondorioz, onestea Administrazio Orokorreko eskalako kudeatzaileen azpieskalako A taldeko A2 azpitaldeko deitutako plaza guztiak**

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 19ko 828/2023 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Foru Aldundiaren 2023rako enplegu publikoaren eskaintzari. Deialdi horretako plazen artean baziren Administrazio Orokorreko eskalako kudeatzaileen azpieskalako A taldeko A2 azpitaldeko bi plaza.

Erabaki horren lehenengo apartatuan jasotakoaren arabera, hautaketa prozesuak arrazionalizatzeko eta eraginkorrak izateko, erabaki horrek jasotzen zituen plazak abian zeuden 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzen deialdietakoei metatu zekizkiekeen, baldin eta deialdi bakoitzaren oinarrietan hala jasota bazegoen. Aipatutako deialdi horiek Foru Gobernu Kontseiluaren honako erabaki hauek onetsi zituzten, hurrenez hurren: abenduaren 27ko 828/2019 Erabakia, abenduaren 22ko 671/2020 Erabakia, abenduaren 21eko 774/2021 Erabakia eta abenduaren 20ko 804/2022 Erabakia.

Abenduaren 21eko 600/2022 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrearen zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko 2019ko enplegu publikoaren eskaintzako hautaketa prozesuak arautzeko oinarri orokorrak. Agindu horren 1.3 apartatuak honako hau xedatzen du:

“Era berean, eskala, azpieskala, klase eta espezialitate bakoitzerako deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da 2023ko ekitaldiko enplegu publikoaren eskaintzan jasotakoekin, baina horrek ez du esan nahi eskabideak aurkezteko beste epe bat irekiko denik. Hartarako, oinarri hauetako 9.2. apartatuan adierazten den oposizio aldiko lehenengo ariketarako edo, hala badagokio, ariketa bakarrerako deialdia argitaratu baino lehen, hornitu behar diren plaza hutsen kopurua zehazten dituen foru agindua onetsiko da”

Abenduaren 22ko 608/2022 Foru Aginduaren bidez, dei egin zen Administrazio Orokorreko eskalako kudeatzaileen azpieskalako A taldeko A2 azpitaldeko 22 plaza betetzeko:

#### 1. Sistema irekia:

A. Txanda orokorra: 14 plaza, honako banaketa honen arabera:

- 2. hizkuntza eskakizuna duten eta derrigortasun data igarota daukaten 12 plaza.
- 2. hizkuntza eskakizuna duten eta derrigortasun datarik ez daukaten 2 plaza.

B. Desgaituentzat gordetako kupoa: 2 plaza, honako banaketa honen arabera:

- 2. hizkuntza eskakizuna duen eta derrigortasun data igarota daukan plaza 1.
- 2. hizkuntza eskakizuna duen eta derrigortasun datarik ez daukan plaza 1.

2. Barne sustapeneko sistema: 6 plaza, honako banaketa honen arabera:

- 2. hizkuntza eskakizuna duten eta derrigortasun data igarota daukaten 5 plaza.
- 3. hizkuntza eskakizuna duen eta derrigortasun datarik ez daukan plaza 1.

Aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera, lanpostu horiei gehitu behar zaizkie Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 19ko 828/2023 Erabakiaren bidez onetsitako 2023ko enplegu publikoaren eskaintzako plazak: Administrazio Orokorreko eskala, kudeatzaileen azpieskala, A taldea, A2 azpitaldea (sistema irekiko bat: txanda orokorra, derrigortasun datarik ez duen hizkuntza eskakizuna, eta barne sustapeneko sistemako bat: txanda orokorra, derrigortasun data igarota).

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, bat etorri dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren 2023ko enplegu publikoaren eskaintzako plazak metatzearen ondorioz, onestea Administrazio Orokorreko eskalako kudeatzaileen azpieskalako A taldeko A2 azpitaldeko deitutako plaza guztiak:

##### 1. Sistema irekia:

A. Txanda orokorra: 15 plaza, honako banaketa honen arabera:

- 2. hizkuntza eskakizuna duten eta derrigortasun data igarota daukaten 12 plaza.
- 2. hizkuntza eskakizuna duten eta derrigortasun datarik ez daukaten 3 plaza.

B. Desgaituentzat gordetako kupoa: 2 plaza, honako banaketa honen arabera:

- 2. hizkuntza eskakizuna duen eta derrigortasun data igarota daukan plaza 1.
- 2. hizkuntza eskakizuna duen eta derrigortasun datarik ez daukan plaza 1.

2. Barne sustapeneko sistema: 7 plaza, honako banaketa honen arabera:

- 2. hizkuntza eskakizuna duten eta derrigortasun data igarota daukaten 6 plaza.
- 3. hizkuntza eskakizuna duen eta derrigortasun datarik ez daukan plaza 1.

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean. Hori guztia, bat etorri Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoarekin — Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta —.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 29a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,  
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**